JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

GEHIGARRIA Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

71. zk. 2004ko ekainaren 23an, asteazkena - Miércoles, 23 de junio de 2004 nº 71

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**3.989**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2004ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi zuten:

8/2004 FORU ARAUA, EKAINAREN 14KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN EHIZARI BURUZKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Ehiza gizarteko sektore handi batean erroturiko jarduera da, eta ehiza baliabide naturalak aprobetxatzeko eboluzionatu den modua, hain zuzen, izan da ehizaren jarduera definituz joan dena. Hori ere justifikatzen du ehizarako arau berri bat, gaur egungo ehiza kontzeptuari egokitua, taxutzeko ahalegina.

Duela hamar urte baino apur bat gehiago arte, ehizaren aprobetxamendua bera halabeharraren mendean zegoen, edo ehiztariaren esperientziaren eta senaren mendean. Beraz, bat-bateko ekimenak xedatzen zuen ehiztari bakoitzak bere landa egunetatik erdiesten zuena. Gaur egun, ehizak ezin ditu saihestu nekazaritza inguruneetan gertatu diren gizarte eta ekonomia aldaketak (nekazaritzaren mekanizazioa, laboreetarako lagungarri fitosanitarioak, mendiko landaretzaren gero eta dentsitate handiagoa), ez eta ehizari berari zuzenean loturiko ezaugarriak ere (armen eta munizioaren sofistikazioa, ehiztarien artean elkarteak sortzeko joera..). Horrek guzti horrek faktore askok baldintzaturiko ehiza bat sortu du, eta faktore horiek, azken batean, arau soilago eta oinarrizkoago batean elkartu behar dute: ustiatzen diren espezieak kontserbatzearekin eta, beraz, haien populazioen jasangarritasuna bermatzearekin bateragarriak diren kudeaketa irizpideen arabera jardutea ehizan.

Eperrek, untxiek, oilagorrek, birigarroek, basurdeek, orkatzek,.. hainbat ekosistematako animalia populazioak osatzen dituzte, eta interes zinegetikoko espezieak izatearen gainetik, fauna ondarea dira. Ehiza modernoak populazioaren dinamikak berak uzten dion ehizaki kopurua biltzen, erauzten du, eta populazioen eta haien ekosistemen, ehiza lekuen, jarraipena egiteko modu bat izan beharra du.

Ehiza arautzen duten arauen eremuan, jarduera horri dagokion errealitate soziala funtsean aldatu da 1970ean azken Ehizaren Legea argitara eman zenez geroztik, gaur egun arte indarrean. Administrazio Publikoen artean dagoen eskumen banaketa aldatu da, bai eta ingurumena guztion ondaretzat jotzeko kontzeptu modernoa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du ehizaren gaia, eta eskumen hori erabiliz apirilaren 13ko 1/1989 Legea onartu zuen. Lege horrek administrazioko hainbat arau-hausteren kalifikazioa aldatzen du ehizaren eta ibaiko arrantzaren gaietan, eta zigorren zenbatekoak igotzen ditu.

Gerora, ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duenak, erkidegoko administrazio publikoei agindu zien baliabide naturalez ardura zitezen berak jasotzen dituen printzipio orokor batzuen arabera. Printzipio horien artean dago basoko fauna eta landaredia errespetatu beharra, ondare naturalaren zati direlako.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**3.989**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 14 de junio de 2004, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 8/2004, DE 14 DE JUNIO, DE CAZA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La caza es una actividad arraigada en un importante sector de la sociedad y ha sido precisamente la evolución de ésta en la forma de asumir el aprovechamiento de los recursos naturales, la que ha ido enmarcando la práctica venatoria y la que justifica el esfuerzo en tejer una nueva normativa cinegética que se acomode a la actual concepción de la caza.

Hasta hace poco más de una década, lo que es el puro aprovechamiento de la caza se regía por el azar o por la propia experiencia e intuición del cazador; así, era básicamente la improvisación la que delimitaba los rendimientos que cada cazador obtenía de sus jornadas de campo. Actualmente, la caza no puede obviar ni los cambios socioeconómicos que han ocurrido en los ambientes rurales (mecanización del campo, apoyos fitosanitarios a los cultivos, densificación progresiva de la vegetación del monte) ni las propias características directamente relacionadas con ella (sofisticación de las armas y de la munición tendencia al asociacionismo entre cazadores…). Todo ello ha diseñado una caza condicionada por muchos factores que, en definitiva, están destinados a converger en la directriz más básica y fundamental: la de que la caza se practique bajo criterios de gestión compatibles con la conservación de las especies objeto de extracción, garantizando la sostenibilidad de sus poblaciones.

Perdices, conejos, becadas, zorzales, jabalíes, corzos,… forman poblaciones animales pertenecientes a los distintos ecosistemas y son antes que especies de interés cinegético patrimonio faunístico. La caza moderna recoge, “extrae” el cupo de ejemplares que la propia dinámica poblacional le permite, debiendo constituirse como una forma de seguimiento de las poblaciones y de sus ecosistemas, los cazaderos.

En el ámbito normativo que regula la actividad cinegética, la realidad social concerniente o relativa a esta actividad ha variado substancialmente desde la publicación de la última Ley de Caza en 1970, hasta ahora en vigor, tanto por lo que se refiere a la distribución de competencias entre las distintas Administraciones Públicas como por la moderna concepción del medio ambiente como patrimonio de todos.

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de caza y en uso de la misma aprobó la Ley 1/1989, de 13 de abril, por la que se modifica la calificación de determinadas infracciones administrativas en materia de caza y pesca fluvial y se elevan las cuantías de las sanciones.

Posteriormente la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco ordenó a las Administraciones públicas vascas velar por que la gestión de los recursos naturales existentes se realice de conformidad con unos principios generales que proclama, entre los que se encuentra el de que la fauna y la flora silvestres han de ser respetadas como parte integrante del patrimonio natural.

Bestalde, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duenak, ingurune baliabideen babesa arautzen du, biodibertsitatearen kontserbazioa zein biodibertsitate hori osatzen dutenak era jasangarrian erabiltzea bermatzen du, eta administrazio publikoei, zeinek bere aginpidean, estrategiak eta planak sortzea eskatzen die biodibertsitatea kontserbatzeko eta baliabide natural berriztagarriak erabiltzeko, haien artean interes zinegetikoko espezieak.

Arabak badu ahalmena, osorako erakundeek arautu ez duten arlo guztietan, ehizari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek eman dituzten arauei egokitzen bazaie, beti ere. Ahalmen hori baliatuz egiten da arau hau, Araban ehiza arautzeko helburuz, arestian azaldu diren printzipio eta irizpideen arabera.

Arau honen helburua erdiesteko, Foru Aldundiak honako printzipio orokor hauen arabera beteko ditu bere eskumenak:

a) Saiatzea ehiza bateragarria izan dadin ingurumenaren beste erabiltzaile batzuen jarduerekin, espezien jasangarritasunarekin eta ekosistemek orekari eustearekin.

b) Kontuan hartzea ehiza Arabako gizarte eta kulturan erroturiko jarduera dela, eta hiriko zein nekazaritzako inguruneetan mugimendu ekonomiko garrantzitsua sortzen duela.

c) Ehizaren kudeaketaren ardura ehiztariekin eta haien elkarteekin banatzea, haiek baitira ehiza fauna babesteko interesik handiena dutenak.

d) Ehizaren antolamendu egoki baten barruan, interes zinegetikoko espezieen aprobetxamendua planifikatzea, kontuan hartuz ondare naturalaren zati direla.

e) Ehizarako eskubide arautuaren gainetik, ehiza espezieak dauden ingurunea, hango baliabideetako bat direnez gero, kontserbatzeko eta hobetzeko gizarte funtzioari lehentasuna ematea.

I. TITULUA
PRINTZIPIO OROKORRAK

**1. artikulua.- Xedea**

1.1. Foru Arau honek honako xede hau du:

- Ehiza baliabideen eta ehizaren jardueraren antolamendua arautzea Araban.

- Interes zinegetikoko espezieak babestu, kontserbatu, sustatu eta, hala badagokio, aprobetxatzea.

- Ehiza, gizarte jarduera den aldetik, ondare naturalaren kontserbazioarekin eta nekazaritza inguruneen interesekin bateratzea.

**2. artikulua.- Ehizatzeko ekintzaz**

Ehizatzeko ekintza da gizakiak egiten duena armak, animaliak, arteak edo beste baliabide batzuk erabiliz, ehizakitzat jotzen diren animaliak bilatzearren, haien arrastoa segitzearren, jarraitu edo jazartzearren, haiek hiltzeko, haietaz jabetzeko, garraiatzeko, lekuz aldatzeko edo hirugarren batzuek harrapatzea errazteko helburuz, bai eta zuzenean beharrezkoak diren prestakuntza ekintzak egitea ere.

**3. artikulua.- Ehiztariaz**

3.1. Aurreko artikuluan zehaztu den ehizatzeko ekintza egiten ari den pertsona oro da ehiztaria. Uxatzaileak edo ehiza eraikitzaileak ere ehiztariak dira, bai eta ehiza zelatatzeko gidak ere, baina ezin izango dute armarik eraman uxaldian edo ehiza eraikitzean.

3.2. Edozein arma motarekin ehizatzeko eskubidea baliatzeko, adin nagusitasun penala izatea beharrezkoa izango da, edo, hamalau (14) urtetik gorako pertsonen kasuan, adin nagusiko beste ehiztari batek edo batzuek laguntzea izango da beharrezkoa. Halaber, araudi bidez ezarritako gaitasun probak gainditu beharko dira, eta dagokion lizentziaren jabe izan beharko da. Horrez gain, kasu bakoitzean eskatutako baldintzak bete beharko dira.

3.3. Armak erabiltzen dituen ehiztari orok aseguru kontratu bat egin beharko du, ehizan jarduteagatik sor litzakeen kalte guztiak ordaintzeko betebeharra bere gain hartuko duena.

**4. artikulua.- Lurrez.**

4.1. Araban, ehizarako aprobetxamendua planifikatzeko nahiko azalera jarraitua duten ehiza lur onartuetan eta halakotzat seinaleztatuetan bakarrik egin ahal izango da ehiza.

4.2. Ehiztariaren betebeharra da ehiza egin nahi duen lurretan ehiza baimenduta dagoen ala ez ziurtatzea.

A su vez, La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, regula la protección de los recursos ambientales, procurando la conservación de la biodiversidad y la utilización sostenible de sus componentes y traslada a las distintas Administraciones Públicas en sus respectivos ámbitos competenciales la elaboración de las estrategias, planes y programas para la conservación de la biodiversidad y la utilización sostenible de los recursos naturales renovables, entre los que se encuentran las especies de interés cinegético.

El Territorio Histórico de Álava tiene potestad para desarrollar normativamente la actividad cinegética en todo aquello que no haya sido regulado por las Instituciones Comunes y siempre que se ajuste a las normas emanadas de ellas. En el ejercicio de esta potestad se elabora esta Norma que pretende regular la actividad cinegética en Álava, según los principios y criterios antes expuestos.

Para la consecución del objeto de esta Norma, la Diputación Foral ejercerá sus competencias conforme a los siguientes principios generales:

a) Procurar la compatibilidad de la actividad cinegética con los derechos de otros usuarios del Medio Ambiente, el sostenimiento de las especies y el mantenimiento equilibrado de los ecosistemas.

b) Considerar la actividad cinegética como una práctica arraigada en el ámbito sociocultural de Álava que genera, además, un movimiento económico importante en los entornos urbanos y rurales.

c) Corresponsabilizar a los cazadores y a sus asociaciones en la gestión de la caza como primeros interesados en la protección de la fauna cinegética.

d) Planificar, en el marco de una adecuada ordenación cinegética, el aprovechamiento de las especies de interés cinegético teniendo en cuenta que forman parte del patrimonio natural.

e) Subordinar el derecho regulado de caza a la función social de conservar y mejorar el medio ambiente del que forman parte las especies como uno de sus recursos.

TÍTULO I
PRINCIPIOS GENERALES

**Artículo 1.- Objeto**

1.1. La presente Norma Foral tiene por objeto:

- Regular la ordenación de los recursos cinegéticos y el ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava.

- Proteger, conservar, fomentar y, en su caso, aprovechar las especies de interés cinegético.

- Armonizar la caza como actividad social con la conservación del patrimonio natural y los intereses del medio rural.

**Artículo 2.- De la acción de cazar**

Se considera acción de cazar la ejercida por el hombre mediante armas, animales, artes u otros medios que tienda a buscar, rastrear, atraer, perseguir o acosar a los animales considerados como piezas de caza con el fin de darles muerte, apropiarse de ellos, transportarlos, desplazarlos de lugar o facilitar su captura por terceros, así como la ejecución de los actos preparatorios que resulten directamente necesarios.

**Artículo 3.- Del cazador**

3.1. Cazador es toda aquella persona que esté ejerciendo la acción de cazar definida en el artículo anterior. Los batidores u ojeadores, así como los guías de rececho, son también cazadores pero no podrán portar armas durante la batida o el ojeo.

3.2. Para ejercer el derecho a cazar con cualquier tipo de arma será preciso haber alcanzado la mayoría de edad penal, o, en el caso de personas mayores de catorce (14) años, ir acompañado por otro u otros cazadores mayores de edad. Así mismo, se deberán superar las pruebas de aptitud que se determinen reglamentariamente y estar en posesión de la licencia correspondiente, sin perjuicio de los demás requisitos exigidos en cada caso.

3.3. Todo cazador con armas deberá concertar un contrato de seguro que cubra la obligación de indemnizar los daños que pudiera causar con motivo del ejercicio de la caza.

**Artículo 4.- De los terrenos**

4.1. El ejercicio de la caza en Álava sólo podrá realizarse en los terrenos cinegéticos reconocidos y señalizados como tales cuya extensión superficial continua permita la planificación de sus aprovechamientos cinegéticos.

4.2. Es obligación del cazador asegurarse de que le está permitida la caza en el terreno en que pretende llevarla a cabo.

**5. artikulua.- Interes zinegetikoko espezieez**

5.1. Foru aldundiak horretarako onartuko duen araudiak zinegetikotzat jotako espezieak, subespezieak, eta basoko edo basaturiko fauna populazioak bakarrik ehizatu ahal izango dira, arau honetan ehizarako industria eremuetarako ezarritakoaz gain.

Ez da inola ere arriskuan dagoen espezierik, subespezierik edo basoko faunaren populaziorik interes zinegetikoko espezietzat joko.

5.2. Foru Aldundiko Sail eskudunari dagokio administrazio baimena ematea birpopulatzeko edo askatzeko ehizakiak produzitzen eta saltzen dituzten abeltegi zinegetikoak instalatzeko, ustiapen estentsibokoak barne, beharrezkoak izan daitezkeen beste baimen batzuk gorabehera.

5.3. Edonola ere, Foru Aldundiko Sail eskudunak baimendu eta kontrolatu beharko ditu gatibutasunean hazitako edo probintziako beste leku batzuetatik ekarritako ehizakiekin egiten diren birpopulatze eta askatzeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaren Babesari buruzko Legean eta Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundia askatutako espezieak higiene eta osasun egoera egokian egoteaz arduratuko da, bai eta horien eta basoko beste espezien arteko bateragarritasun genetikoaz ere.

**6. artikulua.- Titulartasuna**

6.1. Interes zinegetikoko espezieak ondare naturalaren zati direnez, arau honetan ezartzen diren eskubide eta betebeharrak ehiza aprobetxamenduen eskubideen titularrei dagozkie. Horrez gain, arau honek berariaz ahalmen batzuk onartzen ditu ehiza aprobetxamenduak dauden lurren jabe edo titularrentzat.

6.2. Foru Aldundiak ehiza aprobetxamenduak eratu ahal izango ditu, eta hirugarren bati laga, lurren titularrek sustatzen ez dituztenean. Halaber, aprobetxamenduen ehiza eskubidea bereganatu ahal izango du titularrek erabiltzen ez dutenean, titularrei entzun ondoren eta araudiak ezartzen duen ehiza errentaren ehunekoa onartu ondoren.

**7. artikulua.- Ehizaren plangintzaz**

7.1. Ehiza aprobetxamendu oro honako aprobetxamendu plan hauen arabera egin beharko da:

a) Ehizaren Antolamenduko Plana, aprobetxamendua esleitu aurretik egina. Plan hori izango da, haren indarraldian, ehiza barrutiaren ezaugarri zinegetikoak eta aprobetxamendu aukerak zehaztuko dituen esparru dokumentua.

b) Ehizaren Segimenduko Plana. Urtero egingo da, Ehizaren Antolamenduko Plana garatzeko eta kudeatzeko tresna gisa.

c) Baliabide Natural Zinegetikoak Antolatzeko Planak. Natura Babesteko Euskal Legean jasotzen den figura hau ehiza-esparruen eremua gainditzen du. Horretarako ingurumen unitate berean daudenak biltzen ditu, kudeaketari koherentzia ematen dio eta eragindako alderdi guztiak sarten ditu eta guztien jarraipena egiten du.

Arabako Foru Aldundiak beharrezko lan eta ikerketa guztien ardura izango du, gehienez hiru urteko epean, Arau hau onesten den egunetik aurrera kontatzen hasita, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak ezarri ahal izateko.

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin behin behinez onestuko dute Jarduera zinegetikorako Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan horiek.

7.2. Foru Aldundiko Sail eskudunak ezarri ahal izango ditu Arabako Kudeaketa Unitate bakoitzerako ehiza irizpideak, eta horiei jarraitu behar izango diete dagozkien ehiza planek onartuak izateko.

Halaber, ehiza plan bateratu bat edo gehiago eginarazi ahal izango ditu, ehiza lurren mugakidetasunagatik edo kudeaketa arrazoiengatik.

7.3. Ehiza planak onartzeko espedientean dagozkion erakunde titularren onespena eman izana azaldu beharko da.

II. TITULUA
INTERES ZINEGETIKOKO ESPEZIEEZ

**8. artikulua.- Interes zinegetikoko espezieak**

8.1. Interes zinegetikoko espeziak araudian halakotzat zehazten direnak dira, arau honetako 5. artikuluak arautu bezala.

**Artículo 5.- De las especies de interés cinegético**

5.1. Sólo se podrá ejercitar la caza sobre las especies, subespecies y poblaciones de fauna silvestre o asilvestrada que hayan sido declaradas cinegéticas por la normativa que al respecto apruebe la Diputación Foral, sin perjuicio de lo dispuesto en esta Norma para las Zonas Industriales de Caza.

En ningún caso la declaración como especie de interés cinegético podrá afectar a las especies, subespecies o poblaciones de fauna silvestre catalogadas como especies amenazadas.

5.2. Corresponde al Departamento Competente de la Diputación Foral, sin perjuicio de otras que sean necesarias, la autorización administrativa para la instalación de granjas cinegéticas destinadas a la producción y venta de piezas de caza para la repoblación o suelta, incluidas las que puedan realizarse en régimen extensivo.

5.3. Las repoblaciones y sueltas con piezas de caza criadas en cautividad o procedentes de otros lugares del territorio deberán ser, en todo caso, autorizadas y controladas por el Departamento Competente de la Diputación Foral conforme a lo dispuesto en la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y en esta Norma Foral.

La Diputación Foral de Álava se responsabilizará del estado higiénico-sanitario de los ejemplares liberados, así como de la compatibilidad genética de los mismos respecto a las especies silvestres.

**Artículo 6.- Titularidad**

6.1. En cuanto las especies de interés cinegético forman parte del patrimonio natural, los derechos y obligaciones establecidos en la presente Norma corresponden a los titulares de los derechos de los aprovechamientos cinegéticos sin perjuicio de las facultades que expresamente reconozca esta Norma a los propietarios o titulares de otros derechos de los terrenos sobre los que se asienten.

6.2. La Diputación Foral podrá constituir aprovechamientos cinegéticos y cederlos a un tercero cuando los titulares de los terrenos no los promuevan así como disponer del derecho cinegético de los aprovechamientos cuando sus titulares no lo ejerciten previa audiencia de éstos y reconocimiento del porcentaje de la renta cinegética que se señale reglamentariamente.

**Artículo 7.- De la planificación cinegética**

7.1. Todo aprovechamiento cinegético deberá hacerse conforme a los siguientes planes de aprovechamiento:

a) El Plan de Ordenación Cinegética, realizado previamente a la adjudicación del aprovechamiento. Dicho plan será el documento marco en el cual se definan las características cinegéticas del coto y las posibilidades de aprovechamiento durante su período de vigencia.

b) El Plan de Seguimiento Cinegético, de realización anual, como instrumento de gestión y desarrollo del Plan de Ordenación Cinegética.

c) Planes de Ordenación de los Recursos Naturales cinegéticos. Esta figura recogida en la Ley Vasca de Conservación de la Naturaleza supera el ámbito de los cotos de caza, agrupando aquellos que se encuentran dentro de las mismas unidades ambientales, dando coherencia a la gestión e incorporando a su elaboración y a su posterior seguimiento a todas las partes afectadas.

La Diputación Foral de Álava asumirá la responsabilidad de elaboración de los trabajos y estudios necesarios para que en un plazo no superior de tres años desde la aprobación de esta norma se puedan implantar los mencionados Planes de Ordenación de los Recursos Naturales.

La aprobación definitiva de estos Planes de Ordenación de los Recursos Naturales para la actividad cinegética se realizará de común acuerdo entre la Diputación Foral y el Gobierno Vasco.

7.2. El Departamento Competente de la Diputación Foral podrá establecer los criterios cinegéticos de cada una de las Unidades de Gestión de Álava a los que deberán atenerse los respectivos planes cinegéticos para su aprobación.

Igualmente podrá exigir la elaboración de uno o más planes cinegéticos conjuntos por motivos de colindancia de los terrenos cinegéticos o por razones de gestión.

7.3. En el expediente de aprobación de los planes cinegéticos deberá constar la conformidad previa de las entidades titulares correspondientes.

TÍTULO II
DE LAS ESPECIES DE INTERÉS CINEGÉTICO

**Artículo 8.- Especies de interés cinegético.**

8.1. Son especies de interés cinegético aquéllas que reglamentariamente se definan como tales, conforme al artículo 5 de esta Norma.

8.2. Interes zinegetikoko espezieak dira, oro har, Foru Aldundiko Sail eskudunak ehiza garai bakoitzerako onartzen dituenak, arau honetako 5. artikuluak arautu bezala. Zehazki, interes zinegetikoko espezieak dira halakotzat jotzen direnak aprobetxamendu bakoitzeko ehizaren antolamenduko eta segimenduko planetan.

8.3. Ehiza aprobetxamenduen plangintzari eta antolamenduari dagokienez, espezieak bi taldetan sailkatzen dira: ehiza larria eta ehiza xehea. Bestalde, ehiza xeheko espezien artean, migratzaileak direnak eta ez direnak bereiziko dira, eta bereziki uretako hegaztiak.

8.4. Araudi bidez zehaztuko da zein egoeratan Foru Aldundiko Sail eskudunak, salbuespen gisa, baimendu ahal izango duen interes zinegetikoko beste espezie batzuk ehizatzea.

**9. artikulua.- Ehizakien jabetzaz**

9.1. Ehiztaria berak ehizan harrapaturiko ehizaki hilen zein bizien jabea izango da, baldin eta arau honetan edo garatzen duten xedapenetan ezartzen diren aginduak betetzen badira ehizatzean.

9.2. Ehizatzea zilegi zaion lurretan ehizaki bat hiltzen edo zauritzen badu, ehiztariak ehizaki hori eskuratzeko eskubidea du, nahiz eta bestelako lurretan sartzen edo erortzen den, baina lur horietara arma zabalik edo deskargatuta eta txakurra loturik dituela sartu behar du.

Lurrak hesituta baleude, titularraren edo haren ordezkariaren baimena beharko luke ehiztariak hara sartzeko, eta baimena ukatzen bazaio, ehizaki zauritu edo hila eman diezaioten eskubidea luke, aurkitzekotan eta eskueran egotekotan, ehizakia ehizarako industria eremu batetik datorren kasuetan izan ezik.

9.3. Aurretik itunik edo hitzarmenik egon ezean, harrapaturiko ehizakiaren gaineko jabetza eskubidea hil duen ehiztariari dagokio ehiza xeheko ehizakiak badira, eta lehenik zauritzen duenari ehiza larriko ehizakiak badira.

9.4. Ehiztariak Administrazio Publikoko baimendutako langileei eman beharko dizkie ehizatutako piezak edo pieza horien laginak, baso animalienosasun egoerari buruzko azterketak egiteko bai eta beste azterketa-mota batzuk egiteko ere. Ehizatutako pieza osoa eskatzen dietenean, ehiztariak ordain bat jasotzeko eskubidea izango du.

**10. artikulua.- Gatibutasunean dauden ehizakiak**

10.1. Ehizakiak gatibutasunean izateak Foru Aldundiko Sail eskudunaren berariazko baimena beharko du.

10.2. Legezko baimena duten ehiza lur hesituen barruko ehizakiak ez dira gatibutasunean dauden ehizakitzat joko.

**11. artikulua.- Interes zinegetikoko espezieek sorturiko kalteak**

11.1. Interes zinegetikoko espezieek sorturiko kalteen erantzukizuna honako hauei egokituko zaie:

a) Ehiza aprobetxamenduen titularrei, ehizaren antolamenduko planaren arabera, interes zinegetikoko espezieek sorturiko kalteei dagokienez. Subsidiarioki, halakotzat onartu diren ehiza lurren titularrak izango dira erantzule.

b) Ehizarako ez diren lurren titularrei, haiek sustatu dituzten fauna babeslekuen kasuan, eta ehiza leku debekatuetan.

c) Arabako Foru Aldundiari, honako kasu hauetan:

c.1) Kalteak gertatu diren aprobetxamenduko ehizaren antolamenduko planean sartuta ez dauden interes zinegetikoko espezieek egindako kalteen kasuan, espezie kaltegilea planetik kanpo uztea aprobetxamenduaren titularrak erabaki badu izan ezik. Titularra izango da erantzule halakoetan.

c.2) Aldundiak sustaturiko fauna babeslekuetan interes zinegetikoko espezieek sortutako kalteen kasuan.

d) Trafiko, motor ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko abenduaren 19ko 19/2001 Legearen Seigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, automobil istripu batean interes zinegetikoko espeziak harrapatzen dutenean, edo istripu horiek galarazteko, erantzukizunak zehazteko orduan kontuan izango dute zein egoeratan gertatu den, eta, batez ere, ea gidariak zirkulazio arauak bete ez dituelako gertatu den. Dena dela, dagokienei erantzukizuna eska ahal izango zaie, araudi zehatzaren arabera. Eta behin betiko erabaki ahal izango dira istripuaren egoerak bai eta harramenaren bat dagoen edo ez istripuaren eta probetxamendu zinegotikorako antolamendurako xedapenen artean, edo istripua ehiza ekintzaren ondo-

8.2. Son especies de interés cinegético, con carácter general, las que para cada temporada de caza apruebe el Departamento Competente de la Diputación Foral conforme al artículo 5 de esta Norma. Específicamente, son especies de interés cinegético las que de designen como tales en los Planes de Ordenación y Seguimiento Cinegético de cada aprovechamiento.

8.3. Respecto a la planificación y ordenación de los aprovechamientos cinegéticos, las especies se clasifican en dos grupos: caza mayor y caza menor. A su vez, dentro de las especies de caza menor, se distinguirán las que son migratorias de las que no lo son y de manera diferenciada, las aves acuáticas.

8.4. Reglamentariamente se determinarán las circunstancias en las que excepcionalmente el Departamento Competente de la Diputación Foral podrá autorizarla caza sobre otras especies de interés cinegético.

**Artículo 9.- De la propiedad de las piezas de caza**

9.1. Serán propiedad del cazador las piezas que hubiese capturado, vivas o muertas, mediante el ejercicio de la caza siempre que ésta sea realizada conforme a las prescripciones establecidas en esta Norma o en las disposiciones que la desarrollen.

9.2. El cazador que hiera o mate una pieza en terreno donde le sea permitido cazar tiene derecho a cobrarla aunque entre o caiga en terreno distinto, pero la entrada en este terreno deberá efectuarse con el arma abierta o descargada y el perro atado.

Si el terreno estuviese cercado necesitará permiso del titular o de su representante para penetrar en el mismo, y si le fuese negado tendrá derecho a que se le entregue la pieza herida o muerta si fuese hallada y pudiese ser aprehendida, excepto en los casos en los que la pieza proceda de una Zona Industrial de Caza.

9.3. En ausencia de pacto o convenio previo, el derecho de propiedad sobre la pieza cobrada corresponderá al cazador que le hubiere dado muerte si se trata de piezas de caza menor, y al autor de la primera sangre, cuando se trate de piezas de caza mayor.

9.4. El cazador estará obligado a facilitar piezas de caza o muestras de tejidos de las mismas a solicitud del personal autorizado por las Administraciones Públicas con el objeto de realizar estudios sanitarios sobre la fauna silvestre u otro tipo de investigaciones científicas. En el caso de que se le requiera la entrega de una pieza de caza completa el cazador tendrá derecho a una compensación.

**Artículo 10.- Piezas de caza en cautividad**

10.1. La tenencia de piezas de caza en cautividad requerirá autorización expresa del Departamento Competente de la Diputación Foral.

10.2. Las piezas de caza que se hallen en el interior de terrenos cinegéticos cercados, legalmente autorizados, no se considerarán en cautividad.

**Artículo 11.- Daños producidos por las especies de interés cinegético.**

11.1. La responsabilidad por daños ocasionados por las especies de interés cinegético corresponderá:

a) A los titulares de los aprovechamientos cinegéticos respecto de los producidos por las especies de interés cinegético incluidas en su Plan de Ordenación Cinegética. Subsidiariamente, serán responsables los titulares de los terrenos cinegéticos reconocidos como tales.

b) A los titulares de los terrenos no cinegéticos en el caso de los Refugios de Fauna promovidos por ellos y en los Vedados.

c) A la Diputación Foral de Álava, en los siguientes casos:

c.1) Respecto de los ocasionados por las especies de interés cinegético no incluidas en el Plan de Ordenación Cinegética del aprovechamiento en el que se hayan producido, salvo que la exclusión del Plan de la especie causante del daño haya sido decidida por el titular del aprovechamiento, en cuyo caso responderá éste.

c.2) Respecto de los producidos por las especies de interés cinegético en los Refugios de Fauna promovidos por la Diputación.

d) De conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Sexta de la Ley 19/2001 de 19 de diciembre de reforma del texto articulado de la Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, en los accidentes de tráfico por atropellos de especies de interés cinegético, o para evitar los mismos, para la determinación de las responsabilidades se tendrán en cuenta las circunstancias concurrentes y especialmente si la responsabilidad pudiera ser atribuida al conductor por incumplimiento de las normas de circulación como causa suficiente de los daños ocasionados, ello sin perjuicio de la responsabilidad que sea exigible a quien corresponda conforme a la normativa específica y de que sean proba-

rio zuzena izan daitekeen edo ez, edo jarduera zinegetikoaren kudeaketan oharkabetasun bat gertatu izanaren ondorio.

11.2. Honako kalte hauek berariaz uzten dira erantzukizunetatik kanpo, eta beraz ezin zaizkie aurretik aipaturiko titular edo erakundeei egotzi:

a) Kaltedunari edo hirugarren bati egotz dakizkiokeenak, kulpagatik, axolagabekeriagatik edo borondateagatik.

b) Industria ustiategietan edo modu artifizialean edo ez basatian hazi diren interes zinegetikoko espezieek sorturiko kalteak.

c) Foru Aginduz izurritzat jotako espezieek sorturiko kalteak.

d) Ohiko nekazaritza lan, teknika edo praktikekin laboratu ez diren alor landuetan sorturiko kalteak.

e) Landa bideetan eta basabideetan sorturiko kalteak.

11.3. Arabako Foru Aldundiak jakinarazi behar dizkie hala eskatzen duten interesatuei lekuaren eta espeziaren ezaugarri zinegetikoak, aurreko arauen araberako erantzukizuna zehazteko.

III. TITULUA
LURREZ.

I. KAPITULUA.- EHIZA LURREZ.

**12. artikulua.- Ehiza lurrez.**

12.1. Honako hauek dira Ehiza Lurrak:

a) Ehiza Barrutiak

b) Ehizako Gizarte Barrutiak

c) Ehiza Kontrolatuko Eremuak

d) Ehizarako Industria Eremuak

12.2. Ehiza lurrek araudiz zehaztutako seinaleak izan beharko dituzte.

12.3. Apirilaren 13ko 1/1989 Legearen ondorioetarako, lur horiek ehiza erregimen bereziko lurrak dira.

**13. artikulua.- Ehiza Barrutiez**

13.1. Ehiza Barrutiak dira ehiza aprobetxamendua izan dezaketen lur azalera jarraituak, Foru Aldundiko Sail eskudunaren Foru Aginduz halakotzat jo eta onartu direnean, aldez aurretik eskaera eta, batera, dagokien ehizaren antolamenduko plana —batera edo lehenago onartu beharrekoa— aurkeztuta.

Baimenaren indarraldia eman eta hamar urtetara iraungiko da, eta iraupen bereko epealdietarako berritzea eskatu daiteke.

Ehizaren titularrak edo berak baimendutako pertsonek bakarrik ehizatu ahal izango dute ehiza barrutietan. Ehiza aprobetxamendua alokatzen bada, maizterrak izango ditu ahalmen horiek.

Ehiza barrutiaren titularrak eskatu ahal izango dio ehiza aprobetxamenduaren titularrari ehizaren antolamenduko planaren zenbatekoa itzultzeko, ehiza eskubideen erreserbari dagokion partea deskontaturik, halako eskubiderik egonez gero.

13.2. Ehiza barruti izan daitezkeen lurren jarraitutasuna ez da etentzat hartuko ibaiak, errekak, kanalak, erabilera publikoko bideak, abelbideak, trenbideak edo antzeko ezaugarriak dituen beste edozein instalazio egoteagatik.

13.3. Ehiza barrutia eratzeko, lurrek jarraitutasun fisikoa izan beharko dute, eta barrutiaren gutxieneko azalerak Araba barruko 500 hektareakoa izan beharko du. Dena dela, barrutien artean ehiza batera kudeatzea eta ehizan batera jardutea erraztuko da. Ehiza barruti guztien barruan, publikoak direla edo pribatuak direla, Erreserba Eremu bat egongo da, barrutiaren azaleraren ehuneko hamarra hartuko du, eta onartua izateko araudiz ezarritako konfigurazioko eta kokapeneko baldintzak bete beharko ditu.

13.4. Partikularrek ehiza barruti pribatuak eratu ahal izango dituzte beren jabetzako lurretan edo jabeek baimendutako lurretan, baldin eta eskatzen den gutxieneko azalera badute, beti ere.

13.5. Toki erakundeek ehiza barruti publikoak sustatu ahal izango dituzte beren lurretan, baldin eta eskatzen den gutxieneko azalera badute, beti ere. Horretarako, herriguneak edo ehiza debekaturik dagoen eremuak kanpo geldituko dira, eta ez da kontuan hartuko eragindako lur sailen izaera publikoa edo pribatua den.

das debidamente las circunstancias del accidente y en concreto si existía relación entre el accidente y las disposiciones de ordenación del aprovechamiento cinegético o si el siniestro pudiera ser consecuencia directa de la acción de caza o negligencia en la gestión de la actividad cinegética.

11.2. Quedan expresamente excluidos, no siendo por tanto imputables a los titulares o entidad anteriores, los siguientes daños:

a) Los imputables al perjudicado o a un tercero, por culpa, negligencia o voluntad.

b) Los causados por especies de interés cinegético criadas en explotaciones industriales o de forma artificial o no silvestre.

c) Los causados por especies declaradas como plaga mediante Orden Foral.

d) Los producidos en parcelas de cultivo que no se hayan manejado con el laboreo, técnicas o prácticas habituales agrarias.

e) Los ocasionados en caminos rurales y vías forestales.

11.3. Corresponde a la Diputación Foral de Álava comunicar a los interesados que lo soliciten las características cinegéticas del lugar y especie, a efectos de determinar la responsabilidad conforme a las normas anteriores.

TÍTULO III
DE LOS TERRENOS

CAPÍTULO I.- DE LOS TERRENOS CINEGÉTICOS

**Artículo 12.- De los Terrenos Cinegéticos**

12.1. Son Terrenos Cinegéticos:

a) Los Cotos de Caza

b) Los Cotos Sociales de Caza

c) Las Zonas de Caza Controlada

d) Las Zonas Industriales de Caza

12.2. Los terrenos cinegéticos deberán tener la señalización que se determine reglamentariamente.

12.3. A efectos de la Ley 1/1989 de 13 de abril del Gobierno Vasco, estos terrenos tienen la consideración de terrenos de régimen cinegético especial.

**Artículo 13.- De los Cotos de Caza**

13.1. Son Cotos de Caza las superficies continuas de terreno susceptibles de aprovechamiento cinegético que hayan sido declaradas y reconocidas como tales, mediante Orden Foral del Departamento Competente de la Diputación Foral, previa solicitud acompañada del Plan de Ordenación Cinegética correspondiente que deberá ser conjunta o previamente aprobado.

La validez de la autorización caducará a los diez años de haberse otorgado, pudiendo solicitarse su renovación por sucesivos períodos de idéntica duración.

El ejercicio de la caza en los cotos sólo podrá ser realizado por el titular cinegético o por las personas por él autorizadas. En el caso de arrendamiento del aprovechamiento cinegético, estas facultades recaerán en el arrendatario.

El titular del coto podrá exigir al titular del aprovechamiento cinegético el reintegro del importe del Plan de Ordenación Cinegética descontando la parte que corresponda a la reserva de derechos de caza si existieren.

13.2. No se considerará interrumpida la continuidad de los terrenos susceptibles de constituirse en Cotos de Caza por la existencia de ríos, arroyos, canales, vías o caminos de uso público, vías pecuarias, vías férreas o cualquier otra instalación de características semejantes.

13.3. Para la constitución del coto será preciso que los terrenos tengan continuidad física y que la superficie mínima del acotado sea de 500 hectáreas situadas en el Territorio Histórico de Álava, favoreciéndose, no obstante, la gestión cinegética y la práctica cinegética común entre acotados. Todos los cotos, sean públicos o privados, incluirán una Zona de Reserva de una extensión mínima del diez por ciento de la superficie del coto que deberá reunir los requisitos de configuración y emplazamiento que se fijen reglamentariamente para su aprobación.

13.4. Los particulares podrán constituir cotos privados sobre terrenos de su propiedad o terrenos cuyos propietarios así lo autoricen siempre que cuenten con la superficie mínima exigida.

13.5. Las Entidades Locales podrán promover cotos públicos sobre su término siempre que cuenten con la superficie mínima exigida, con exclusión de los núcleos poblados y de las áreas en las que esté prohibida la caza, con independencia del carácter público o privado de la propiedad de los predios afectados.

Toki erakundeek, bat etorriz gero, toki eremuez gaindiko ehiza barruti jarraituak eratzea sustatu ahal izango dute, baldin eta aprobetxamendu modua aldez aurretik hitzartu bada, beti ere.

Ehiza barruti publiko batetik lurrak banandu ahal izateko, ehiza barruti pribatua eratzeko asmoz, ezinbesteko baldintza izango da ehiza barruti publikoak 500 hektareako gutxieneko azalera izaten segitzea.

13.6. Ehiza barrutiak eratzeko eskubidea erabiltzen hasi denetik bi urtetara iraungiko da. Denbora hori igaro ondoren, Foru Aldundiko Sail eskudunak lur horiek foru arau honetako 20 artikuluan jasotzen diren Ehiza Kontrolatuko Eremuetako batean sartzea erabaki ahal izango du. Horrelakoetan, ehiza barrutia eratzeko eskubidea lau urtetik lau urtera hasiko da berriz, urtebeteko epealdietan, ehiza kontrolatuko eremua indarrean den artean.

13.7. Toki erakunde bateko lurretan beste erakunde bateko biztanleek ehizaren aprobetxamendu komunerako eskubidea dutenean, ehiza barrutia sustatzen duen toki erakundeak kontuan hartu beharko du egoera hori barrutia zedarriztatzean, eta horretarako biztanle horiei dagokien toki erakundeari arauzko txostena eskatu beharko dio.

13.8. Foru Aldundiko Sail eskudunak, ehiza barrutia eratzeko edo berritzeko baimena ematean, titularrari erantzukizun zibileko poliza baten kontratua aurkeztea eskatuko dio, ehiza barrutiaren titularrak zein, hala badagokio, ehiza aprobetxamenduaren titularrak pertsonei edo ondasunei egin liezazkieketen kalteak ordaintzeko betebeharra bere gain hartuz, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, ehiza zaintzarako kontratu bat aurkeztea eskatuko du edo, hala badagokio, esleitzeko prozedura arautzen duten oinarrietan sartuko du, ezinbesteko baldintza gisa, esleipendunak ehiza zaintzarako kontratu bat aurkeztu behar duela esleipena formalizatzean. Ehiza barrutiaren titularraren betebeharra izango da bi kontratuen iraunaldia mantentzea edo, hala badagokio, egiaztatzea. Baina aprobetxamenduaren titularrari kontratuen zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango dio, dagokion partea deskontaturik titularrak ehiza eskubideak beretzat gordetzen baditu.

13.9. Arabako Foru Aldundiko Sail eskudunak ehiza barrutiak egiaztatzeko matrikularen zenbakia emango du, eta matrikula tasak zedarriztaturik dagoen lurreko hektarea bakoitzeko zehaztuko ditu, ehiza posibilitateen arabera. Tasa horrek urtebeteko indarraldia izango du, dagokion ehiza planaren indarraldi osorako batera formalizatzen bada izan ezik. Urteko matrikula tasa ez ordaintzeak, arauzko ordaintze epea igaro ondoren, ehiza barrutiaren ehiza aprobetxamendua bertan behera uztea ekarriko du, eta ordaintzeari behin eta berriz uko egiten bazaio, aprobetxamendu hori kentzea.

13.10. Arabako Foru Sail eskudunak, kautelazko neurri gisa, ehiza lurretan ehiza aldi baterako bertan behera uztea erabaki dezake, eragindako ondasunei eta eskubideei premiazko babesa emateko, honako egoera hauetako edozein objektiboki egiaztatu ondoren:

a) Pozoiak, arteak, lakioak edo animalia espezieak arriskuan jartzen dituzten beste batzuk behin eta berriz jarri izanaren arrazoizko susmoak egotea, baldin eta ekintza horiek aprobetxamenduaren titularrei egotz badakizkieke.

b) Ehizaren plangintza behin eta berriz ez betetzea.

13.11. Interes zinegetikoko espezieen eta, oro har, fauna basatiaren osasun egoeraren kontrola ziurtatzeko, Arabako Foru Aldundiko Sail eskudunak—ofizioz edo toki erakundeek edo ehiza lurren titularrek eskatuta— beharrezko neurriak hartuko ditu epizootiak eta zoonosiak prebenitzeko, egiaztatzeko, diagnostikatzeko eta deuseztatzeko.

